

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

ARRATZUA-UBARRUNDIAKO UDALA

Behin betiko onarpena ematea ezkontza zibilak nola egin arautzen duen ordenantzaren aldaketari

Espediente horri alegaziorik jarri ez zaionez, argitaratu egiten da, indarrean jar dadin.

Ezkontza zibilak nola egin arautzen duen ordenantza

1. artikulua. Ordenantzaren xedea

Ordenantza honen xedea da arautzea Arratzua-Ubarrundiako udaletxean ezkontza zibilak egiteko zeremonien inguruko gaiak arautzea.

2. artikulua. Ezkontza egiteko lekua

Udalak begirune eta funtzionalitate baldintza oneko leku egokia eta duina gordeko du ekitaldia egiteko, ahal dela bilkura aretoa; hala ere, Sologana gizarte eta kultur etxean horretarako gaitutako lokal bat ere erabili ahalko da behin-behinean.

Alkateak edo hark eskuordetzen duen zinegotziak baimena eman ahalko du ezkontza zibiletarako gordetako edozein espazio erabiltzeko, baldin eta aurretik jasotzen badu ezkontideetako edozeinek edo haien familiakoren batek aurkeztu beharreko dokumentazioa.

3. artikulua. Eskaerak izapidetzea

Ezkontza zibila egiteko eskaerak Arratzua-Ubarrundiako Udaleko sarrera erregistroan aurkeztu beharko dira, hauek jasota:

– Erregistro zibilean edo bake epaitegian egindako espedientearen kopia, espedientea Arratzua-Ubarrundiako bake epaitegian izapidetu behar ez denetan.

– Interesdunaren eta, halakorik badago, bere ordezkari den pertsonaren izen-abizenak, helbidea eta identifikazioa, bai eta jakinarazpenetarako lehentasunez erabili nahi den bidea edo lekua. Eskaera aurkezten badu interesdunaren ordezkariak, gertakari hori egiaztatu egin beharko da eskubidean balioduna den edozein modutan, edo interesduna bera agertuta eta hala aitortuta. Baldintza hori bete ezean, ez da eskaerarik onartuko.

– Bi lekuko adindunen izen-abizenak eta identifikazioa.

– Ezkontza zibila zein urtetan, egunetan eta ordutan egin nahi den adierazi beharko da.

– Eskaera non eta noiz egin den.

– Eskatzailearen sinadura edo bere borondatea horixe dela egiaztatzea beste moduren batean.

Aurten interesdunek ezkontza zibila egiteko aurkezten dituzten eskaerei aurretiko gordailuaren ordainagiria erantsi beharko diete, hain zuzen, udal eraikinak erabiltzeagatik ordaindu beharreko tasa arautzen duen zerga ordenantzak finkatua.

Baimena eman baino lehen, udalak egoki jotako agiri, txosten edo azalpen osagarriak eska ditzake.

Bi eskatzaile edo gehiago egonez gero aldi berean ezkontzeko, lehentasuna udalerrian eroldatuta dagoenak izango du eta, bestela, eskaera lehenago eskatu duenak.

Eskaera ukatzen bada, albait arinen jakinaraziko zaio eskatzaileari, kalterik ez sortzeko.

Azaroaren 26ko 30/1992 Legeak, herri administrazioen araubide juridiko eta administrazio prozedura erkidearenak, 32. artikuluan xedatutakoa betez, jarduteko gaitasuna duten interesdunek ordezkari bidez jardun dezakete. Administrazioaren jarduna ordezkariarekin gauzatuko da, interesdunak espresuki aurkakorik adierazten ez badu. Ordezkaritza egiaztatu egin beharko da espedientean, zuzenbidean balioduna den edozein modutan.

4. artikulua. Eskaera zuzendu eta hobetzea

Eskaerak betetzen ez baditu 3. artikuluan jasotako betekizunak, interesdunari 10 eguneko epea emango zaio akatsak zuzendu edo aginduzko agiriak aurkez ditzan, adierazita hala egin ezean eskaera ezetsi egingo dela; hori guztiori azaroaren 26ko 30/1992 Legeak, herri administrazioen araubide juridiko eta administrazio prozedura erkidearenak, 70.1 artikuluan xedatutakoa betez.

5. artikulua. 11:00ak eta 13:00ak bitartean, astelehen eta larunbat bitarteko jai egun ez diren egun guztietan egin ahal izango dira ezkontzeak

Zeremoniak gehienez ere hogeita hamar minutu iraungo du, eta amaitutakoan bertarutakoek bizkor utziko dute horretarako gaitutako udal lokala.

Honela egingo da zeremonia zibila:

– Bertarutakoak bere lekuan jarri ostean, alkatea edo zeremonia egingo duen zinegotzi-ordezkaria agertuko da.

– Alkateak edo haren ordezkari den zinegotziak ekitaldiari hasiera emango dio adierazita ezkontza zibila egiteari ekingo zaiola eta ezkontideen izenak esango ditu; aurretiko espedientearen izapidetzea ere aipatuko du, eragozpenik sortu ez dela argituz.

– Jarraian, alkateak edo haren ordezkari den zinegotziak Kode Zibileko 66., 67. eta 68. artikulua irakurriko ditu, hain zuzen, ezkontideen eskubide eta betebeharren berdintasunari eta ezkontzak dakartzkien betebeharrei buruzkoak.

– Irakurri ostean, alkateak edo haren ordezkari den zinegotziak ezkontideetako bakoitzari galdetuko dio beste ezkontidearekin ezkontzeko adostasuna ematen duen eta une horretan ezkontzen den. Biek baietz erantzuten badute, ezkontza bidez loturik geratzen direla deklaratu du, eta eratzunak elkarri trukatu ahalko dizkiote eta, nola ez, musu eman ezkontza ixteko sinbolo modura, ezkontideek nahi badute.

– Ondoren, alkateak edo haren ordezkari den zinegotziak hitza hartu eta hitzaldi labur bat egingo du ezkontideak zoriondu eta ekitaldiaren garrantzia nabarmentzeko.

– Azkenik, ezkontideek, lekukoek eta alkateak edo haren ordezkari den zinegotziak, eta hurrenkera horretan, kasuan kasuko akta izenpetuko dute. Aktaren ale bat berehala bidaliko da Arratzua-Ubarrundiako bake epaitegira, Erregistro Zibilean inskribatu eta hark egiaztagiria eman diezaien ezkontideei.

6. artikulua. Zeremoniaren akta

Zeremonia kasuan kasuko aktan jasoko du hura zuzentzen duenak, eta bertan jasoko dira eguna eta ordua, zein alkatek edo haren ordezkari den zinegotzik egin duen eta eskatzaileen datu pertsonalak. Hala egindako akta zuzendu duenak, eskatzaileek eta gutxienez bi lekukok izenpetuko dute.

Aktaren ale bat udalak izapidetutako administrazio espedientean jasoko da, ondoren kasuan kasuko udal artxibategietan gordeko duena, beharrezko diren babesak eta bermeak betez, abenduaren 13ko 15/1999 Legeak, datu pertsonalak babestekoak, xedatutakoaren arabera.

Zeremonia bukatutakoan, ezkontideei aktaren ale bat emango zaie. Beste ale bat Arratzua-Ubarrundiako bake epaitegira bidaliko da, dagozkion ondorioak izan ditzan horretarako aurretik bideratu den espedientean.

7. artikulua. Erabiltzaileen eskubideak eta betebeharrak

Udal lokalen erabiltzaileek horiek eta bertako altzariak zaindu beharko dituzte, eta gizalegez jokatu.

Lokaletan eta bertako gauzetan egindako kalteak baimenaren titularraren erantzukizuna izango dira, eta udalak haiek konpontzea eska dezake.

Debekatuta dago arroza, loreak edo antzekoak botatzea ekitaldia izango den lokalaren barruan eta sarreran.

Ezkontideek atondu nahi badute modu berezia udal lokala, nahikoa aurretiaz jakinarazi beharko dute dena delakoa ebatz dadin, betiere gordeta lekuaren oreka eta ezaugarriak. Atontzetik sortzen diren gastuak ezkontideek ordainduko dituzte.

Betetzen ez bada, jarritako fidantza bahituko da, kasuan kasuko espedientea izapidetu ondoren.

Ordenantza honek jasotzen dituen lokaletan ez da inondik inora baimenik emango suziri edo antzekoak erabiltzeko, baldin eta udal eraikinak, lokalak eta lorategiak -toki ondareko leku guztiak barne sartuta- edo bertan dauden pertsonen segurtasuna arriskuan jarri ahal dute.

8. artikulua. Argazkiak eta grabazioak

Argazkiak eta grabazioak egin ahal izango dira horretarako gaitutako aretoan ekitaldia egiten den bitartean, bai eta kanpoan ere, ekitaldia egin baino lehen eta gero, baldin eta oztopatzen ez badira ekitaldia bera, beste ezkontza, ekitaldi edo udal zerbitzuak ibiltzea edo eragiten ez badiete erabiltzen ari diren elementu, lokal eta lorategiei, ezta finkatutako ordutegiari ere.

9. artikulua. Fidantza jartzea

Ospakizuna Sologana gizarte eta kultur etxean egiten bada, 100 euroko fidantza jarri beharra dago instalazioen erabilera zuzena bermatzeko. Ezkontza bilkura aretoan egiten bada, ez da fidantza hori jarri beharko.

Ezkontza egiteko eskaera onartu ondoren jarriko da fidantza eta udal ondasunen egoera egiaztatu ondoren itzuliko da, interesdunek hala eskatu eta gero.

Udal ondasunetan kalteak badira edo ez badaude garbi, kasuan kasuko espedientea irekiko da fidantza bahitzeko, interesdunei entzunaldia emanda.

10. artikulua. Tasa ordaintzea

Tasa bat ordainduko da udalaren jabari publikoa erabiltzeagatik, kasuan kasuko ordenantzan jasotzen dena, eta horren ordainagiria aurkeztuko da ezkontza egiteko eskaerarekin batera.

Azken xedapen bakarra

Apirilaren 2ko 7/1985 Legeak, toki araubidearen oinarriak arautzen dituenak, 70.2 artikuluan ezarritakoa betez, ordenantza hau indarrean jarriko da testu osoa ALHAOn argitaratu eta aipatutako legearen 65.2 artikuluan ezarritako hamabost eguneko epea igaro ondoren.

Denek jakin dezaten argitaratzen da, eta jakinarazten honen aurka administrazioarekiko auzi errekurtsioa zuzenean Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusian jar daitekeela, bi hilabeteko epean, iragarki hau argitaratzen denetik aurrera.

Dura, 2018ko apirilaren 24a

Alkatea

M^a BLANCA ANTÉPARA URIBE